Astigarragako Gurutzeta txapeldun Gipuzkoako IV. sagardo lehiaketan

Badira lau urte sagardotegien arteko txapelketa antolatzen duela Gipuzkoako Foru Aldundiak, udaberri aldean. Azken irabazlea, IV. ediziokoa, Astigarragako Gurutzeta sagardotegia izan zen. Bigarren Usurbilgo Azkonobieta eta hirugarren Ikaztegietako Begiristain geratu ziren.

28 sagardo-ekoizle izan ziren, iaz baino zazpi gehiago



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako azken txapelketan lehen hiru postuetan sailkatu ziren ekoizleak.

Joxe Anjel Goñik, Astigarragako Gurutzeta sagardotegikoak, jantzi zuen txapela azken edizioan eta etxera eraman zituen diru saria –1.500 euro–, diploma eta antzinako karreto-barrika, garaikur gisa.

Garaikurrak Donostiako Ibaeta auzoko Kanpoeder baserriko Jesus Mª Garmendia artisauak egin zituen, urtero bezala. Bigarren eta hirugarren sailkatuek diru saria –750 eta 300 euro, hurrenez hurren– eta irabazlearena baino garaikur txikiago batzuk jasotzen dituzte.

Joxe Anjel Goñiren asmoa diploma eta txapela sagardotegiko leku batean zintzilik jartzea da. Sari horrek sagardo-ekoizleari salduko dituen botiletako etiketetan logotipo bereziren bat (2005eko txapela) jartzeko aukera emango dio.

2005. urtean 28 sagardo-ekoizlek hartu zuten parte, 2004. urtean baino zazpi gehiagok, beraz, orain arte izan diren lehiaketetatik partaide gehien bildu dituen deialdia izan zen. Parte hartu zuten sagardotegiak Gipuzkoako 15 herritakoak ziren: Astigarragako 6, Hernaniko 5, Usurbilgo 4, Urnietako 2 eta Abaltzisketa, Aduna, Andoain, Ataun, Hondarribia, Irun, Ikaztegieta, Oiartzun, Tolosa, Zarautz eta Zeraingo bana. Beraz, Gipuzkoako herrialde guztietakoak ziren ekoizleak.

2005eko lehiaketako sei finalistak honako hauek izan ziren: Andoaingo Gaztañaga, Astigarragako Gurutzeta, Ikaztegietako Begiristain, Irungo Ola, Usurbilgo Urdaia eta Zeraingo Otatza.

Lau edizioetako irabazleen zerrendari Ikaztegietako Begiristainek ematen dio hasiera 2002. urtean. Ondoren, Astigarragako Gartziategi (2003), Adunako Zabala (2004) eta Astigarragako Gurutzeta (2005) suertatu dira garaile.

Oraingoz, lehiaketa hau soilik Gipuzkoan kokatuta egonik Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan alta emanda dauden eta botilatzaile agiria duten sagardo-ekoizleei zuzenduta dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen lehiaketaren helburuak botilatutako sagardo naturalaren kalitatea baloratzea, indartzea eta saritzea dira, ikuspegi organoleptikoa nahiz analitikoa aintzat hartuta. Sagardoaren kontsumoa ere sustatzen saiatzen dira.

Analisi kimikoa

Lehiaketako lehenengo aukeraketa analisi kimiko baten bidez egiten da eta hori gainditzen ez duten sagardoak kanpoan geratzen dira. Analisi horrek sagardoaren garraztasun hegazkorra –2,2 g/l-tik beherakoa, azido azetikoan adierazia–, estraktu lehorra guztira azukrerik gabe –gutxienez 14 g/l– eta metanola –200 mg/l-tik beherakoa– neurtzen ditu. Lehiaketari seriotasuna eta irizpidea ematen dizkio. Horregatik, urtez urte gero eta sagardo-ekoizle gehiagok hartzen dute bertan parte.

Aurtengo lehiaketa prestatzen ari dira jadanik Gipuzkoako Foru Aldundian. «Urtero antolatzen dugun lehiaketa honetan parte hartzeko arauak betikoak izango dira, bakarrik diru sariak aldatuko dira. Arauak martxo edo apirilean bidaliko dizkiegu sagardo-ekoizleei eta apirilean edo maiatzean ekinen diogu laginak hartzeari. Ekainean jakingo dugu nor izango den 2006ko txapelduna», dio Iñaki Larrañagak, Foru Aldundiko teknikari eta lehiaketa honen arduradunak.

